



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa-oharra

Bilduk erantzun-eskea aurkezten deuto Aldundiari euskerearen osasun digitalari buruz

Bilbon, 2012ko azaroaren 28an

Josune Ariztondo Kulturako Foru Diputatu andreak erantzun egin beharko deuto Bizkaiko Batzar Nagusietako Bildu Taldeak egin deutsan erantzun-eskeari, euskerearen “etorkizun digitala hain larria izan beharrean osasuntsua izateko Sailaren ekimenei buruzkoa”. Bildu Taldeak “larritasun berezi batez ikusten du gure hizkuntzak maila digitalean desagertzeko arrisku handian izatea, Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa bat dela medio adierazi duen bezalaxe”. Kontuan izanda Azkue Fundazioak jasotzen dauden diru-laguntza pisutsua, eta honen helburuetako bat zuzenean gai honi loturik dagoala ikusita, Bilduk jakin gura dau “zer nolako emaitza neurgarriak eskatuko zaizkion fundazioari”.

Kultura eta Euskerako Batzordearen bilerea goizeko hamarretan hasiko da Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bategaz, zeinaren bitartez Eusko Jaurlaritzari eskatu gura jakon Bilboko Burdin Hesia Kultur Ondareztat sailkatzeko espedientea aztertu eta abiazo dagiala. Bilboko “Burdin Hesia” deritxanaren zatiren bat udalerrri barruan daben Bizkaiko zenbait udalek asmotan darabile Gerra Zibilean eregitako hesiaren balio turistikoa suspertzea. Popularrek gura dabe aginpidea daukan administrazioak, Eusko Jaurlaritzak, abiazo dagiala hori inbentariatu eta babestea bideratuko dauden espedientea.

Talde berak beste Arauz Besteko Proposamen bat aurkeztu dau Foru Aldundiari eskatzeko jo dagiala Eusko Jaurlaritzara eta Kultura Ministeriora lortu ahal izateko Portugaleteko Burdin Moila edo Txurrukaren Moila Kultur Ondasun izendatzea ahalik eta lasterren, moila horren iraunerazpena eta mantenimendu egokia bermatu ahal izateko.

Batzar horretan eztabaidatuko dan beste ekimen baten bitartez, Bildu adierazoten dau “ulergaitza” eta “zuzenean, herritarren hizkuntz eskubideen urraketa” dala Euskal Herria Esnea kooperatibak produktu bat euskeraz etiketatzeagaitik Eusko Jaurlaritzak zehapen-espedientea edegi izana. Halanda ze, Arauz Besteko Proposamena aurkeztu dau Bilduk babesa eskaintzeko “gure lurraldean ekoizitako produktuak euskaraz etiketatzen dituzten ekoizleei”. Horrezaz ganera, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie “Bizkaiko lehen sektoreko ekoizleek euskaraz etiketatzeko duten eskubidea eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko, bere eskumenen pean dauden jarduera guztiak bultza ditzala”. Ekimen horren bitartez be Eusko Jaurlaritzari eskatzen deusie “lehen sektoreko ekoizleek euskaraz etiketatzeko duten eskubidea eta herritarren



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hizkuntz eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren legeri aldaketak berehala bultza ditzala”.

Batzordean eztabaidatuko dan azken aztergaia izango da Bizkaiko Arkeologi Museoa, Santimamiñeko aztarnategia eta Lurralde Historikoan dagozan gainontzeko aztarnategi pleistozenikoak "Pleistocene People and Places" izeneko lankidetzarako sare europarrean sartzeari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena. Sare horrek Europa guztiko aztarnategi eta museo pleistozenoar garrantzitsuenak hartzen ditu gaur egun. Euzko Abertzaleak Taldeak zuzenketa-eskea aurkeztu dau eskatzeko eze sare horretan sartu aurretik, egiaztatu beharko litzatekeala sare honek gure aztarnategiak babesteko, aztertzeo, araketa zientifikoa egiteko eta nazinoartean hedatzeko orduan izan leiken egokitasuna.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

Bildu pregunta a la Diputación por la salud digital del euskera

Bilbao, a 28 de noviembre de 2012.

La Diputada Foral de Cultura, Josune Ariztondo, deberá responder a una pregunta del grupo Bildu en las Juntas Generales relativa a las actuaciones que su Departamento ha llevado a cabo para que el futuro digital del euskera “deje de ser tan grave y goce de mejor salud”. Desde Bildu observan que la lengua vasca está en “grave riesgo de desaparición” a nivel digital, tal y como recoge un estudio de la Universidad del País Vasco. Teniendo en consideración la importante subvención que recibe la Fundación Azkue, y a la vista de que uno de sus objetivos está relacionado con este ámbito, la coalición abertzale quiere conocer los resultados que le serán exigidos a esta institución.

La Comisión de Cultura y Euskera comenzará a las 10 de la mañana con una Proposición No de Norma del Grupo Popular que quiere reunir el suficiente apoyo parlamentario para instar al Gobierno Vasco a estudiar la Catalogación como Bien Cultural del llamado “Cinturón de Hierro” de Bilbao. Algunos ayuntamientos se han planteado fomentar el valor turístico de los restos de lo que fue el sistema de fortificación construido durante la Guerra Civil Española, y los populares pretenden que la administración competente -el Gobierno Vasco- inicie el expediente correspondiente para su inventario y protección como elemento histórico.

El mismo grupo, a través de otra proposición, solicita instar a la Diputación Foral a que se interese ante el Gobierno Vasco y el Ministerio de Cultura para que procedan cuanto antes a concluir la Declaración como Bien Cultural del "Muelle de Hierro" de Portugalete o "Muelle de Churruca", a fin de garantizar su conservación y adecuado mantenimiento.

Por otro lado, el grupo Bildu cree que es “incompresible” y un “ataque directo a los derechos lingüísticos de la ciudadanía” que un producto etiquetado en euskera por la cooperativa Euskal Herria Esnea, reciba un expediente sancionador por parte del Gobierno Vasco. Por ello solicitan, a través de una Proposición No de Norma, que las Juntas Generales muestren su apoyo a los productores que etiquetan en euskera, así como que la Diputación Foral lleve a cabo todas las acciones que competencialmente le correspondan para garantizar, de una parte, el derecho a etiquetar en euskera y, de otra, los derechos lingüísticos de la ciudadanía. En su iniciativa, pretenden que el Gobierno Vasco a que impulse de manera inmediata las modificaciones legales necesarias para garantizar estos dos derechos.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por último, la Comisión debatirá una Proposición No de Norma relativa a la incorporación del Museo Arqueológico de Bizkaia, el yacimiento de Santimamiñe y los demás yacimientos pleistocénicos existentes en el Territorio Histórico, a la red europea de cooperación “Pleistocene People and Places”, una red que se está creando en la actualidad y que agrupa los yacimientos y centros museísticos de esta época más destacados de todo el Continente. El Grupo Nacionalistas Vascos, a través de una enmienda, quiere que antes de que se produzca esta incorporación, la Diputación estudie y valore la idoneidad de esa red debido a que, en la actualidad, "aparenta falta de operatividad".